






JENTILAK GORBEIAN

HIZTEGIA:

		
JENTILA	LEIZE, KOBAZULOA	ARTZAINA
		
URREZKO TXANPONAK	MORDO / ASKO	HAITZA


Gorbeian, Anbotoko Damaren leizearen aurrean, artzain bat ardiak zaintzen ari zen.



Halako batean, jentil bat gerturatu zitzaion eta kobazulo barrura gonbidatu zuen.

Gizonak, jentilaren gonbidapena onartu zuen.

Leize barruan zeudela, jentila eta gizona hitz egiten hasi ziren.




- Begira! – esan zion jentilak gizonari.

Artzainak jentilak adierazitako tokirantz begiratu zuen eta urrezko txanpon mordoa ikusi zuen haren alboan.

- Hartu nahi duzuna! Ni ez naiz kobazuloan bakarrik bizi. Nirekin bizi den jentila lotan dago orain, baina kontuz, oso gaiztoa da eta esnatzen bada ... - esan zion jentilak.

Orduan, artzainak txanponak gordetzen hasi zen, ahalik eta azkarren, baina jentil gaiztoa esnatu zen eta artzainaren atzetik korrika hasi zen.

Haitzik haitz eta mendirik mendi ziztu bizian joan ziren. Bat-batean, jentila artzaina harrapatzeko zorian zegoela, herritxo bateko kanpai-hotsa entzun zen.



Soinu hura entzutearekin batera, jentil gaizto hura gelditu egin zen eta artzainak ihes egitea lortu zuen.



Izan ere, jentilak ezin zuen kanpai-hotsa entzuten zen lekura hurbildu, eta artzaina, horri esker, salbatu zen.

Euskal Herriko ipuina egokitua

1. Non zegoen kobazuloa?
2. Artzainek, zer zaintzen dute?
3. Nora joan ziren artzaina eta jentila?
4. Jentila bakarrik bizi zen?
5. Zer eman zion jentilak artzainari?
6. Bigarren jentila esnatu zenean, zer egin zuen artzainak?

7. Zergatik gelditu zen jentila ?

8. Zeri esker salbatu zen artzaina?